

B

BARREN



Eskoziarren argira

30 min +10 te +10 gia

30+10 mintegia hizkuntza-kudeaketa enpresan

Antolatzaileak

Makina Erremintaren Institutua
Ahize-AEK
Laneki

Kolaboratzaileak

Eusko Jaurlaritza
Gipuzkoako Foru Aldundia
Elgoibarko Udala

Jardunaldiaren edukia:

MINTEGIAREN SARRERA

HIZKUNTZA POLITIKA SAILBURUORDETZA
GIPUZKOAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA
ELGOIBARKO UDALA

1. SAIOA LANBIDE HEZIKETAREN LANERAKO PRESTAKUNTZA EUSKARAZ

Gehitu proiektuko 2. faseko emaitzen
aurkezpena eta tailerra:

- Eragileen ikuspegitik iritzirik erronda,
- Hausnarketa taldeen lanketa
- Emaitzen aurkezpena

2. SAIOA ENPRESA-PRAKTIKA ONAK

- AHIZE-AEK, Administrazio kontratuak hizkuntza baldintzak betetzeko gida
- ELHUYAR, ETEek nazioarteko harremanetan jarduteko izan ditzaketen hizkuntza- eta kultura-hesiak gainditzeko bideak eta estrategiak, AUTOMOBILGINTZA HIZTEGIA
- ARTEZ, CARITAS BIZKAIA, Bideratzaileak: Egitura berezian hizkuntza irizpideak ezartzeko sarea.
- EMUN, Enpresetako batzarrak eta bilera euskaraz egiteko estrategiak
- LANSAREAN: Enpresa eta profesional euskaldunek elkar ezagutzeko lan-ataria, ENPRESAREAN azokaren aurkezpena.
- IBERBA, Itzulges: Itzulpenak kudeatzeko era berria eskaintzen duen aplikazioa.
- INGUDEA, Goierriko zazpi lantokiren ekimen bateratua lantokietan eragiteko.
- LANGUNE, Bidaxoa: eskualde bat hiru hizkuntza, Eleaniztasuna kudeatzeko programa baterantz
- PuntuEUS domeinua: nola eta zergatik eskatu?

9. EDIZIOA

IMH, Elgoibar

2014/10/2

8:45-14:00

Izen-ematea (beharrezkoa):
www.imh.es - imh@imh.es
Telefonoa 943 74 41 32
IMH, Azkue auzoa 1 - Elgoibar

Informazio gehiago: www.imh.es



STOCK FERIA

urriak 4

Elgoibarren



Larunbata 4

10:30 - 14:30 **STOCK FERIA** (Lekueder parkea)

11:00 - 14:00 **UMEENTZAKO TAILERRAK**

14:00 **ZOKKETA 600 €**



antolatzailea
TXANKAKUA
ELGOIBARKO MERKATARIK

babeslea
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

laguntzailea
elgoibar



Inma
Mugertza



Ander
Izagirre

Duela gutxi udako ikastaro batean parte hartu dut, Ander. Ez dira gutxi izan bertan entzun eta ikasitakoak. Gaia: Lurzoruaren estrategia berriaren erronkak. Ziurrenik, irakurleok, hauxe

irakurri eta begiak zabal-zabalik eta kopeta zimurtuta 'zertaz ari ote da tipa hau?' galdetu diozue zeuen buruari. Egia esan, nik abantaila daukat, izan ere nire lanarekin zerikusia duen gaia da, eta zurearekin ere bai, ezta Ander? Han landu ziren burutapen interesgarri batzuk gerturatu nahi dizkizuet, gu guztiok lurzoruaren erabiltzaile eta ustiatzaile garelako.

Azken boladan *gaixo ahaztua* deitu izan zaio lurzoruari. Gizakiok gure jarduerak lurzoruaren gainean burutzen ditugu, lurzoruia izugarri presionatuz, gehienetan bere funtzionaltasuna galdu arazi arte. Lurzorua ez da inoiz baliabide bizitzat eta ez berriztagarritzat hartu, aitzitik gainean eraikitzeko eta espekulatzeko aukera ematen duen oinarri fisikotzat (zorua) hartu izan da. Horregatik, lurraldearen ingurumen-kontabilitatean ez da kontuan hartu izan eta bere hondatzeari ez zaio garrantzirik eman. Aireak eta urak ez bezala, lurzoruak jabeak ditu eta hortxe dago kokka.

“Metro erdi lurzoru eratzeko milaka urte behar dira”

Baina lurzoruak baditu gure biziraupenean eragina duten funtzio garrantzitsuak, beste askoren artean ur-baliabideen iragazki naturala izatea; aldaketa klimatikoa eta negutegi-efektua moteltzea; edo gure elikagaien iturri izatea.

Metro erdi lurzoru eratzeko milaka urte behar dira. Guk suntsitutakoa ez dugu berreskuratuta ikusiko. Zentzuzkoagoa litzateke jardutea, lurzoru gure seme-alaben mailegua dela jabetuta eta ez gure gurasoengandik jasotako herentzia. Zer diozue?

Nire ikasketekin badu, bai, zer ikusia, Inma. Are gehiago, lurrari buruzko irakasgai bat ere eduki nuen: edafologia (lurraz aztertzen dituen zientzia). Orduan ikusi nuen guretzat lurra soilik dena ikaragarritzko mundu bat dela. Lur mota desberdinak, ezaugarriak, prozesuak... Lurraren erabilpenaren inguruko kontuak ere ikusi genituen beste irakasgai batzuetan eta honen inguruan aipatzen dituzun kontuekin bat nator.

“Airearen eta uraren kutsadurari buruzkoak entzutera ohituago gaude, bai”

Airearen eta uraren kutsaduraz entzuten ohituago gaude bai, baina lurzoruaren kontrolak ere egiten direla esan beharra ere badago. Lurzoruaren kalitatea bermatzeko hainbat lege daude, eta diozun bezala, lur eremu bakoitzak jabea duenez, hauek dira legeak ezarritako kontrolak burutu behar dituztenak. Hala ere, lurreko kutsadura ez da begibistaz ikusten eta asko izango dira, modu batera edo bestera, lege hauek betetzen ez dituztenak. Bestalde, enpresa bat, bere jarduerara bukatzen duenean, lurreko analisia egitera behartuta dagoen arren, analisi hauek ez egiteko trikimailu legalak badaudela jakinda, legeez fidatu ote gaitzke?

Bestetik, gaur egun garrantzi gutxi ematen zaio landa eremuari eta bertako lanari. Gainera, bertatik bizi direnek ongi dakite zenbateko garrantzia duen lurra zaintzeak, baina zoritxarrez, produkzio mota intentsiboek ez dute lurzoru behar bezala errespetatzen.

Bukatzeko, lurraren funtzioak aipatu dituzu eta azalpen bat gehituko nuke ur-baliabideen iragazki naturala izatearen inguruan. Izan ere, ibaiak kanalizatu eta gero, lur eremu handiagoak porlanez estaltzen baditugu, lurraren iragazki funtzioa deuseztatu eta uholde arriskua handitzen dugu.



MEKANOSA
Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



CORDON VILARCHAO

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaldura
Zolak eratzia
Lantekura: egut, aluminio, PVC
Pintura orokorra

GRUP
VILARCHAO

San Roke, 7 behea
Pol. Olaso - Olaso kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak
Tel. 943 749 670

Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzikizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika
ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro
KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Majalen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Inigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarriguarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.
TIRADA 4.860 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92
ISSN 1139-1855

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Eskaintza eta Topagunea

LAGUNTZAILEAK:



ELGOIBARKO UDALA

elgoibar
biZi-biZiKa!



MENDAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen **IRITZIA** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Eskerrik asko

Sanlo EKTko arduradunek eskerrak adierazten diegu asteburu honetan Sanlo Beer Festan laguntzen jardun duten guztiei, eta baita denboraldiko argazkiak egiten lagundu diguten guztiei ere. Guztien laguntzarik gabe ezinezkoa izango zelako horrelako ekintza bat aurrera eramatea.

Era berean, zapatuan Kalegoen plazan egin genuen ELA gaixotasunaren aurkako ekintza egin ahal izateko azpiegitura antolatzen lagun ziguten hauei ere, eskerrik asko: Udala, Bernardo Ezenarro, Burgoa-Somoza, Kale kantariak, eta Lutxi Arregi, eta baita bustitzen zein dirua ematen lagundu duten pertsona guztiei.

Eskerrak eman eta barkamena eskatzen diegu, era berean, horrelako ekintza handiek sortarazten dituzten endreduak jasan behar izan dituztenei.

Sanlo ☪

Francking-ari ez!

Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako fracking-aren kontrako plataformakook 103.589 sinadura aurkeztu genituen pasa den larunbatean Gasteizko Legebiltzarrean, ingurumen eta osasunarekiko arrisku itzelak dakartzan teknika hau legez debekatzeko. Pozik gaude Herri Ekimen Legegile baterako eskatzen dituzten 30.000 sinadurak aise gainditu ditugulako eta herriaren kontzientzia hazten ari delako. Hausnar dezatela EAJ eta PSEko ordezkariak, fracking-aren alde agertu den Gipuzkoako udal bakarra Elgoibar izanik.

Eskerrak eman nahi dizuegu zuen sinadurakin **FRACKING EZ** esan duzenoi; Elgoibarren, milatik gora. Kanpaina honetako puntu negatiboa berriro ere Udalak jarri du gure kartelak kenduz, adierazpen-askatasunari eraso eginez.

Fracking ez ☪

Urriak 11: manifestazio nazionala

Urriari Arnaldo Otegi eta *Bateragune auziko* gainerako lau auziperatuek 5 urteko espetxealdi bidegabeta beteko dute. Egoera hau berri ere salatzeke, haien berehalako askapena aldarrikatzeko, eta senitartekoei gure elkartasuna adierazteko, Arnaldo Askatu Politika Askatu Herri Ekimenetik manifestazio nazionala antolatu

dugu urriaren 11rako.

Manifestazioa larunbatean, Urriaren 11n, arratsaldeko 17:00etan, abiatuko da Elgoibarko plaza nagusitik.

Idatzi honen bitartez, parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu.

Eskerrik asko!

Arnaldo Askatu, Politika Askatu herri ekimena ☪

Elgoibarko Gau Krosa

Idatzi honen bidez, Mintxeta Atletismo Taldeak eskerrak eman nahi dizkie Elgoibarko Udalari, Udal Kirol Patronatuari, eta nola edo hala, beraien laguntza eskaini duten guztiei: Marcajes Telleria, Elgoibarko Kutxa, Astigarraga etxea, Txarriduna, Usua Taberna, Tantaka, King-Kong, Salento, Iriondo Taberna, Kaiku, Zahor, *El Diario Vasco*, Coca-Cola, Baqué, Gurutze Gorria, El Corte Inglés, Netto, La Pera, Arruabarrena, **BARREN** eta Sanlo Eskubaloi Taldeari.

Elgoibarko herriari ere eskerrak eman nahi dizkiogu ekitaldiaren antolatzaileei eskainitako laguntzagatik, baita gure herrira lasterketan parte hartzera eta ondo pasatzera etorri ziren atleta guztiei egindako harrera beroagatik ere. Aurtentzen inoiz baino korrikalari elgoibartar gehiagok hartu dute parte, eta hori nabarmentzeko da.

Herriko Gau Krosaren helburua hauxe izan da: Nazioarteko Juan Muguerza Kroserako dirua biltzea, Iortutako IAAF maila handi honi eusten jarraitzeko. Horregatik, lanean jarraituko dugu 2015eko urtarrilaren 25a arte, LXXII. edizioaren egunean Mintxetan elkar ikusiko dugun itxaropenez.

Mintxeta atletismo taldea ☪

Eskerrik asko


Lerro hauen bidez, eskerrak eman nahi dizkizuegu San Bartolome jaien barruan Baserritar Egunean kantura gerturatu zineten guztioi. Baita ere eztarria bustitzera gonbidatu gintuzten tabernariari ere. Giro alaiari pasa genuen eguna.

Opor ostean, irailarekin batera, iritsi da gure hurrengo zita, hilaren azkeneko larunbata. Ohitura dugun bezala eguerdiko hamabietan bilduko gara Kalebarren plazan. Beraz, abestea gus-tuko duzuen guztiak gonbidatuta zaudete.

Elgoibarko kale kantariak ☪

Uztailean eta abuztuan...

JAIOTAKOAK



Telmo Insausti Nova
Ekainak 30
Jose Manuel eta Maider



Edur Guinea Martinez
Uztailak 1
Iosu eta Berta



Lara Gurruxaga Galdona
Uztailak 5
Egoitz eta Miren



Jare Hernandez Fernandez
Uztailak 6
Juankar eta Goretti



Danel Prieto Perez
Uztailak 16
Jose Miguel eta Ana



Unax Romera Ebaniz
Uztailak 19
Ruben eta Sonia



Aritz Sansuan Zamorano
Uztailak 26
Pedro eta Susana




Nerea Etxabe Zabala
Abuztuak 7
Urtzi eta Lorea




Uxue Burgaña Ernabide
Abuztuak 27
Asier eta Ainhoa



Unax Gallego Aranberri
Abuztuak 28
Aitor eta Goizane



Sare Palomino Gallastegi
Uztailak 4
Iñigo eta Almudena



Othman El Maataoui Tahr
Uztailak 6
El Bekkay eta Hanane

Daniel eta Markel Perez Barrio
Uztailak 7
Maria Carmen

David Vlad Mut
Uztailak 9
Grigore eta Aurelia

Mariam Mansour
Uztailak 10
Aokkach eta Malika

Elene Iriondo Odrizola
Uztailak 18
Josu eta Nahikari

Ibai Zabaleta Arregi
Uztailak 25
Aitor eta Eneida

Alarik Sagasta Perez
Uztailak 31
Joseba eta Uzuri

Astrid Rodriguez Juarez
Abuztuak 3
Miguel Anjel eta Smirna

Nahia Tellebrea Juaristi
Abuztuak 16
Santos eta Ainhoa

Libe Jurado Bastida
Abuztuak 21
Jesus eta Iratxe

Noa Castañeda Dominguez
Abuztuak 26
Jose Antonio eta Aitziber

HILDAKOAK

- Evelio Coca Lorenzo • 92 urte • Uztailak 13
- Sebastian Odrizola Aranberri • 84 urte • Uztailak 16
- Juan Jose Alvarez Enriquez • 57 urte • Uztailak 18
- Boni Ipiña Usabel • 85 urte • Uztailak 23
- Ines Palencia Bon • 89 urte • Uztailak 29
- Petra Goyogana Zulaika • 102 urte • Abuztuak 4
- Pedro Mari San Martin Juaristi • 62 urte • Abuztuak 5
- Maria Iriondo Lizarralde • 92 urte • Abuztuak 8
- Juana Zabala Esnaola • 62 urte • Abuztuak 10
- Marina Galdos Mardaras • 86 urte • Abuztuak 10
- Petra Barrenetxea Larrea • 66 urte • Abuztuak 12
- Manuel Gonzalez Rodriguez • 91 urte • Abuztuak 15
- Merche Herrero Fernandez • 79 urte • Abuztuak 19

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak**

**Erietxe zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27

(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56 / (Sakelekhoa) 635 756 295

EZKONDUTAKOAK

- Aitor Comejo eta Amaia Erkizia Uztailak 18
- Mitxel Santos eta Maite Rodriguez Uztailak 18
- Jon Ander Candelas eta Joana Ruiz Uztailak 19
- Mikel Armendia eta Itziar Lejaristi Uztailak 19
- Aitor Cantos eta Amaia Rodriguez Uztailak 19

36ko gerran Zirardamendiko fronte-lerroan borrokatu zuten gudariak omendu zituzten domekan Aiastian

Hobi komunak bisitatu zituzten, eta Gernikako arbolaren kimu bat landatu zuten agintariek

Hainbat instituzio, elkarte, kultur erakunde eta alderdi politikotako ordezkariak hartu zuten parte domekan, 1936ko irailaren azken aldera eta urriaren erdialdea bitartean Elgoibarko Zirardamendi-Aiastia fronte-lerroan parte hartu zuten gudariak eskainitako gorazarrean. Elgoibarko alkate Alfredo Etxeberriak eta Jose Luis Ibarzabal Bilduko udal ordezkariak eta Bittori Zabala EAJkoak harrera egin zieten Iñigo Urkullu lehendakariari eta gainerako agintariei. Ondoren, gudariak hil zituzten ingurura abiatu ziren, eta bi hobi komun bisitatu zituzten. Han, hobietatik gorpuak ateratzeko egindako lana azaldu zuten Francisco Etxeberria Aranzadi Zientzia elkarteko presidentek eta Lourdes Herrasti antropologoak, eta Elgoibar 1936 elkarteko Hodei Otegi eta Iñaki Odriozolak. Segidan, lehendakariak eta beste agintariek loreak ipini zituzten hobi bietan.

Handik Aiastiako pilotalekura itzuli ziren eta han, frontoiaren kanpo horman jarritako murala bistaratu zuten eta Gernikako arbolaren kimu bat landatu zuten, tartean Iñigo Urkullu Jaurlaritzako lehendakariak, gudari ibilitakoek eta Elgoibarko Udaleko ordezkariak.



Energia berriztagarrien inguruko hitzaldiak izango dira gaur zortzi, Mendaron

Energia berriztagarriei buruzko bi hitzaldi antolatu dituzte Mendaron gaur zortzirako, urriaren 3rako. Munduan energiarena da gizateriak daukan arazo garrantzitsuenetakoa eta hain justu ere, arazo horren gordinaz ohartaraziko du Alain Ulazia Eibarko unibertsitate eskolako Energia Berriztagarrien Graduko irakasleak aurreneko hitzaldian. Munduan zehar energia lokal garbia baliatzeko egin diren hainbat asmakizunen berri ere emango du Ulaziak. Bestetik, Pablo Rodriguez eibartarrak Mendaroko Plaza auzoan energia minihidraulikoa baliatzeko egindako proiektua aurkeztuko du. Hitzaldiak udaletxean izango dira, 20:00etatik aurrera.

Torturak eta eraso sexistak salatu ditu Ainara Ladronek Espainiako Auzitegi Nazionalean, Murillo epailearen aurrean

Segiko kide izatea egotzita epaitzen ari dira Ladron, beste 27 lagunekin batera

Segiko kide izatea egotzita, 28 lagunen kontrako epaiketa hasi zuten astelehenean Madrilen, Espainiako Auzitegi Nazionalean. Auzipetuen artean dago Ainara Ladron elgoibartarra. Martitzenean deklaratu zuen Ainarak epailearen aurrean, eta torturak eta eraso sexistak salatu zituen. Besteak beste, biluzarazi eta mahai batean jarri zutela salatu zuen: “Bost polizia gizonezkoz inguratutako neska gazte bat nintzen. Edozer egin zezaketen”. Ainara Ladronek ez du epailearen aurrera berriz joan beharrik izango azken unera arte, haurdun dagoelako.



Elgoibarko Udala saritu du Espainiako Ingurumen Ministerioak mugikortasun iraunkorra sustatzeagatik

Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak 2014ko Mugikortasun Iraunkorri buruzko Sariak banatu ditu, eta Elgoibarko Udalak urrezko domina lortu du, 3.000 eta 50.000 biztanle arteko Udalen kategorian. Europako tokiko agintariak garraio iraunkorreko neurriak hartzea eta bultzatzera animatzea, eta aldi berean, ibilgailu pribatuaren ordezkotako garraiobideak sustatzea da egitasmo honen helburua. Elgoibarko Udalak 2012-2013 urteetan eginiko ekintza hauengatik jaso du saria: batetik, auto elektriko partekatuentzako aparkalekua jartzeagatik Toletxegainen, eta bizikleta elektriko partekatutak aparkatzeko bi gune jartzeagatik Ubitarten eta Toletxegainen. Bestalde, bizikletak uzteko hainbat leku egokitzeagatik herrian. Horrez gain, EMUGI zerbitzuaren bitartez auto partekatuen erabilera sustatzeagatik eta herri erdigunean bizikleten erabilera errazteko seinale berriak jartzeagatik ere nabarmendu dute. Horiez gain, Pedro Migel Urruzuno kalean gehienez 20 kilometro orduko abiadura muga ere ezarri du Elgoibarko Udalak.



Denok Kluba sortu du Anateusk Berrikuntzarako Zentroak, txakurra dutenen eta ez dutenen arteko elkarbizitza sustatzeko

Anateusk Berrikuntzarako Zentroa 2012an hasi zen txakurrekin lanean behar bereziak zituzten pertsonen laguntzeko, eta aurretik atal berri bat ireki dute esparru horretan: Denok Kluba jarri dute martxan, ongizatea eta elkarbizitza sustatzeko txakurra daukatenen eta ez daukatenen artean. Eusko Jaurlaritzarekin eta Elgoibarko Udalarekin elkarlanean, Elgoibar izango da egitasmo berri hori martxan jartzeko aukeratu duten lehenengo herria. Txakur jabeekin eta txakurrekin hasi dira lanean, eta aurrera begira Lehen Hezkuntzako umeekin eta Udaltzaingoarekin ere egingo dituzte ekintzak.

Denok Kluba topaleku bat txakurra duten, izan nahi duten, txakurra laguntzat hartzen duten, eta txakurra dutenak eta ez dutenak armonian bizitzea nahi duten pertsona eta familientzat. Txakurra familiako kide berezitat hartzen duten pertsonak daude klubean. Familiako kide horrek ere bere betebeharrak ditu, eta gizartea errespetatzeko konpromisoa ere bai. Klubeko kide egiteko interesa dutenek 943 255 025 edo 688 805 656 telefonoetan jaso dezakete informazio gehiago.

AINHOA MENDIBIL

Gure Esku Dagokoa

Gure Esku Dago mugimenduaren komunikazio alorrean dihardu lanean Ainhoa Mendibilek (Elgoibar, 1988) eta lana tarteko, bertatik bertara jarraitu ahal izan du Eskoziako erreferenduma. Han ikusi eta bizitakoen inguruan eta Gure Esku Dagoren ibilbide orriaz jardun dugu berbertan.

Ainara Argoitia


“Eskoizian herritarrek irabazi dute”

Erresuma Batuan jarraitzea erabaki dute eskoziarrek. Erabaki egin dute. Alde horretatik pentsatzekoa da Gure Esku Dago balorazio positiboa egingo duela.

Bai, jakina. Herritarrek irabazi egin dute han. Eraitza jakin aurretik ere lorpena zen, herriari erabakitzeke eskubidea aitortu diotelako eta eskoziarrek erabaki egin dutelako. Guk gure ikuspuntutik begiratuta gauza batzuk nahastu egiten ditugu, baina ez dugu ahaztu behar Alex Salmond [Eskoziako lehen ministroak] erreferendumera deitzeke bidea hasi zuenean autogobernua sendotzeko egin zuela. Erreferendum biharamunean elkarrizketak egiten jardun genuen guk han, eta ezetza eman zutenetako batek esan zigun %100ean sinistuta eman zuela berak ezetza, baina asko poztu zela baietzak %45a lortu zuelako, azken batean berak ez zuelako independentzia nahi, baina bai Eskoziaren autogobernua sendotzea.

Erreferendumaren biharamunean sare sozialetan eraitza baloratu zutenetako askok tristura agertu zuten. Gaur estatu gabeko nazioak direnak estatu izateko bide horretan zeintzuk pauso eman behar zituzten ikusteko eta nazio gatazkak kudeatzen ikasteko aukera paregabea ikusten zuten Eskoizian.

Nik neuk ere ez dizut esango ezetzak tristetu ez ninduenik, baina ni ez naiz nor eskoziarrek erabakitzen dutena zalantzan jartzeko, azken batean independentzia ona delako edo gutxienez zilegi, baldin eta herriak hala erabakitzen badu. Eskoizian baietzak irabaztea nahi nuen guretzat eredu ona eta gertukoa izan zitekeela



pentsatzen nuelako. Eredu ikusten nuen European nola jokatu ikusteko, baina ate hori itxi da, oraingoz behintzat.

Egunotan asko irakurri eta entzun dugu Eskoziatz eta esan zaigu eztabaida oso modu zibikoan eraman dutela herritarrek han. Zuk zer ikusi edo sumatu duzu?

Hori bera, baina muturrera eramanda, gainera. Ametsek [Arzallus] esaten zigun han ikusten ari ginena ez zela normala; hain natural bizi zutela han, guri antinaturala egiten zitzaigula. Eta halaxe izan da. Zibismo edo bizikidetzak horrek harritu nau gehien. Han ez dago hausnartarako egunik, eta erreferendum egunean bertan ere ikusi ditugu batzuek eta besteak hautesleku atarietan kanpaina egiten eta elkarren artean politikaz eta etorkizunaz berba egiten. Eta berba egiten, ez hemen bezala elkarri trapu zaharrak botatzen. Nork bere argudioak ematen zituen han. Adibide bat jarriko dizut, oso deigarria egin zitzaidana. Hautesleku atarian ikusi nuen bazetorrela baietzaren aldeko bat paparrean pin bat zuela. Nabarmena zen hark zer bozkatu behar zuen, baina hala ere, ezetzaren aldeko bat han joan zitzaion hitz egitera eta independentzia zein kaltegarri izango zitzaizkien konbentzitzera. Hori hemen

pentsaezina litzateke. Pin gabe ibilita ere, hemen berehala identifikatzen ditugu gure ustetan gure aldekoak direnak eta ez direnak. Asko harritu gaitu, era berean, galdekatutako denek erantzun izana zer bozkatu zuten eta zergatik. Denek arrazoitzen zuten euren botoa, eta nork bere arrazoiak zituen. Inork ez zituen esku orri batean irakurritakoak buruz errezitatu. Zer bozkatu noiz erabaki zuten ere elkarrizketatu guztiei galdetu genien eta bazeuden batzuk goizean bertan erabaki zutela esan zigutenak. Ezin nuen sinetsi. Gu askoz korporatibistagoak gara, edo are, sektarioak, Iñaki Sotok esan zigun moduan. Hemen badago hauteskundeetatik hauteskundeetara botoa aldatzen duenik, baina gehiengoa “familia” batekoak gara. Han, pragmatikoagoak dira eta pentsatzen dute: “Ia, orain momentuan zer da onena niretzat eta nire herriarentzat?”.

Aberri sentimenturik badute?

Bai, denek. Identitatearekin lotuta badago gauza bat, baina, aipatu nahiko nukeena. Xavier Solano SNPk Westminsterren [Erresuma Batuko parlamentua] daukan aholkulariak esana da. Solano kataluniarra da izatez, eta bere ustez hemen denean badago gako bat. Bera baietzaren aldekoa zen, jakina, baina berak esaten zigun gure aldean han baietzaren aldekoek ez diotela Eskoziaren kontra eta Erresuma Batuaren esanetara egotea leporatzen ezetzaren alde dauden eskoziarrei. Bestera esanda: baietzaren aldekoak ez direla besteak baino eskoziaragoak sentitzen. Denak dira eskoziarrak, eta bakoitzak bere proiektua dauka etorkizunerako.

Estatu izateko bidean nola jokatu behar den ikasteko aukera galdu dela esaten dute zenbaitzuek, baina zuk esan-dakotik iruditzen zait ez dela hori ikasteko geneukan guztia. Zer diozu? Nik ez daukat zalantzarik. Asko ikasi dugu eskoziarregandik. Ate hori ixteaz ere gauza asko esan dezakegu. Guk gurea ezagutzen dugu eta oso gertu daukagu Kataluniako kasua, eta gure ikuspuntu horretatik egin ditugu balorazio asko erreparatu gabe hango egoera beste bat dela. Bai, Eskozian erreferenduma egin bada Londresi esker ere izan da, eta hemen egin ezin bada, bada neurri handi batean Espainiak lagatzen ez digulako, baina nik dakidala hemen oraindik inork ez du proposatu galdeketa bat egitea, beraz zein ari zaigu trabatzen? Angel Oiarbidek [Gure Esku Dagoen bozeramailea] esaten du demokraziaren *pedigree* berri bat sortu dela European eta aurrerantzean estatu baten demokrazia neurtzeko orduan Londresen emandako erdua ere aintzat hartu beharko dela.

Juan Jose Ibarretxek egin zuen galdeketerako saio bat Jauriaritzako lehendakari zela, baina moztu zizkieten hegoak hari ere.

Bai, egia, Ibarretxek egin zuen ahalegin bat, baina gerora zer? Nik uste dut eskoziarregandik ikasi dugula erreferenduma bera nola prestatu eta kudeatu. Eta bai, Londresek baimendu die, eta Londres bada eredugarri, baina eskoziarrek adostu dute euren artean erreferenduma egin behar dela eta lortu dute galdeketa egitea. Asko daukagu egiteko.

Eta ari da Gure Esku Dago indarra egiten.

Bai, lehenengo gure artean adostu behar dugu, geuk egin behar dugu

indarra, ezberdinen arteko indarrak metatuta, eta behin adostasun hori lortuta etorriko da eguna herri honek galdeketa egitea proposatuko duena. Baina ordurako guk etxeko lan asko dauzkagu egiteko.

Parte-hartzea %84 ingurukoa izan zen. Deigarria da Eskoziako parlamenturako eta Erresuma Batuko parlamenturako hauteskundeetan baino handiagoa izatea. Zelan baloratu da han hori?

Gure begietatik begiratuta, ematen zuen han ez zela ari ezer gertatzen. Han egin zuten galdera hil ala bizikoa izango litzateke hemen, eta han aldiz, erreferendum egunean ere lanera joan ziren eskoziarrak. Eta jakina, ikusten zenuen hori eta pentsa zenezakeen arinkeriak jokatzeko ari zirela, baina ez. Gero ikusi zen parte-hartze handia izan zela eta eskoziarrek serio hartu zutela erreferenduma, bazekitelako euren etorkizuna erabakitzen ari zirela. Gure begietara, baina, gauza batzuk bitxiak dira. Botoen zenbaketa bera. Martxelo Otamendi [Berria-ko zuzendaria] ere han zen, suminduta. Ez zuen ulertzen botoen kontaketa horrenbeste lizatzea. Ezin zuen ulertu XXI. mendean, mundu guztia eurei begira zutenean, kontaketa horren astiro egitea eta egunkarietara emaitzarik gabe ixtea edizioak. Guk geuk ere biharamunerako geneukan hegaldia hartuta, baina aldatu egin behar izan genuen, ordurako emaitzik ez genuela izango jakin genuenean. Baina Igor Kaltzada Oxford Unibertsitateko irakasleak zuzendu gintuen: “Zuen begietatik begiratzen duzelako egiten zaizue ulertezin. Zu zure herriaren etorkizuna erabakitzen ari bazara, zer dira bost ordu? Ezer ez”. Berak esan zigun han boto bakoitza urrezko bihurtzen zutela eta botoak ondo kontatuko zituzten berme osoa

izateko 32 kontaleku zituztela jarrita.

‘Gaur lo egingo duzu?’, galdetzen genien guk herritarrei eta ‘Zer egingo dut ba?’ erantzuten ziguten harrিতa. Gu euforia antzeko batean geunden, eta eurek, berriz lo.

Erreferendumaren atarian, David Cameron Erresuma Batuko lehen ministroak agindu zuen eskumen gehiago emango zizkiola Eskoziari eta berriki esan dute urtarilerako prest izan nahi dutela Eskoziaren eskumenak zeintzuk izango diren zehaztuko duen legea. Hori zelan baloratzen zuten han?

Oso modu positiboan. Ezetzaren aldekoek galdetu genien hori bereziki eta denek erantzun zuten oso erabaki ona iruditu zitzaizela. Batetik, gehienek eskumen gehiago nahi dituztelako Eskoziarentzat, eta bestetik, independentziari ez esan nahi ziotelako.

Ez dakit aurrez egona zinen Eskozian, baina zerk harritu zaitu gehien? Ez, ez nengoen egonda. Harritu? Besteen arrazoiak ulertzeko egin duten ahaleginak. Entzun egin dituzte besteen argudioak eta saiatu dira ulertzen eta haienetik gauza positiboak ateratzen, jakitun direlako politikan ezer ez dela beltza edo zuria. Identitatearen kontua ere ikaragarria iruditu zait. Independentzia lotzen badugu identitatearekin, lotzen badugu euskaldunago izatearekin, ba jakina, askoz da eraman zailagoa galdeketa bera eta emaitza. Ni zer naizen zuk erabakiko duzu? Han ez dago halakorik. Baina denaren gainetik, konturatu naiz ezin dugula Euskal Herria Kataluniarekin konparatu eta are gutxiago Eskoziarekin, hemen zauri asko daudelako zabalik oraindik eta hori karga han-

“Eredugarri da Londres, baina galdeketa egitea eskoziarrek eurek adostu dute”

Ainhoa Mendibil, Eriz Zapirain 'Gazta zati bat' dokumentalaren egilea eta Amets Arzallus bertsolaria.

dia delako guretzat. Txundituta etorri naiz handik, baina ez itsututa, eta badakit gure errealitateak baduela Eskoziaren antzekotasunik, baina oso ezaugarri bereziak dituela eta horrek aparteko egiten gaituela.

Zu zeu politikagintzan jardundakoa zara. Ez zaizu iruditzen sarri alderdi politikoek herritarrak batzeko egin ahal zuten guztia egin ez dutelako gaudela hein handi batean gauden egoeran?

Nik ez daukat inori ezer esateko edo kontu hartzeko. Eskoziara egindako bidaian konturatu naiz han independentzia ekonomiarekin eta eredu sozial jakin batzuekin lotzen zutela, eta ez horrenbeste hemen aberria ulertzen dugun horrekin. Baina hori han posible da herria egina dutelako. Hemen zer da Euskal Herria? Zer da euskaldun izatea? Galdera horientzako erantzun guztiak lokatz artean dauzkagu hemen, oraintsu arte erabakitzeko eskubidea eduki dugun bezala. Ametssek esaten zigun orain gauden moduan guk ezin dugula eskoziarrek egin duten bide bera egin, baina komeni zaigula ideia batzuk hartu, hausnartzea eta ikustea identitatearen marrarekin batera beste marra batzuk ere zabaldu beharko genituzkeela. Beste modu batera hasi behar garela lantzen etorkizuna nola eraiki. Gure Esku Dagon badaramagu urtebete pasa esaten bidea ezberdinak batzetik etorriko dela eta nik uste dut lehenengo pausoa hori dela. Hemen urteetan egon gara gure teiltatu beraren azpian bizi den ezagunarekin hitz egin gabe, bestekoa zelako. Eta orain, eman diogu eskua elkarri eta ez dugu ulertzen zergatik egon garen horrenbeste urtean hori egin gabe. Iruditzen zaigu dena egin dugula keinu horrekin, baina gero bagoaz Eskoziara eta... Haiek, gure aldean, urte asko daramatzate demokraziaren bidean pausok ematen.

Begiak Eskoziaren jarrita pasatu ditugu egunak, eta orain jarri gara Kataluniara begira. Gainean dute azaroaren 9a. Ezin garela haiekin alderatu esan duzu, baina haiengandik ere izango dugu zer ikasia, ala?

Independentziaren aldeko aldarria independentzia zaleek hasiko zuten han ere, baina gero beste askok lan handia egin dute herritarrek duten erabakitzeko eskubideaz ohartarazteko eta jende asko batu zaie. Eta jendea batzeko horretan asko lagundu die, jakina, Espainiako Gobernuak erakutsi duen jarrera itxiak. Horrek amorrarazita, independentzia zale ez diren asko ere batu edo gerturatu dituelako mugimendu horrek. Askok esango dute: nola da posible nik nire etorkizunaz erabaki ezin izatea, eta are gehiago elkarrizketarako prest naukazula esan dizudanean? Eskoziaren bertan esaten genien guri ez zigutela erabakitzeko eskubidea aitortzen ez ziguten ulertzen. Ezetzaren aldeko batek behin halaxe esan zigun euskaldunak izateagatik independentziaren alde egongo ginela ondorioztatu zuenean: "Ai, azkenean zuek ere Erresuma Batuen parte izan nahiko duzue, erabakitzeko eskubidea izateko".

Ezagutzen gaituzte Eskoziaren?

Bai, denek, eta ez gaituzte ETarekin lotzen, gainera. Kataluniaren ondoan ikusten gaituzte, eskua altxatzen moduan.

Gure Esku Dagon diharduzu lanean. Aurrera begira, zer egitea aurreikusten duzue?

Bihar batzarra egingo dugu Gasteizen, eta batzar horretan erabakiko da Gure Esku Dago aurrerantzean hartu behar duen norabidea eta ur-



te honetan zer egingo den eta nola. Ez dakit zer erabakiko dugun, baina edozein ekimen egitea erabakitzen dela ere, oinarritzko lanak orain arte egindako bera izaten jarraituko du: herritarren arteko konplizitate hori lantzea eta jarraitzea pedagogia egiten ikusteko erabakitzeko eskubideak batu egiten duela zaitu beharrean.

Gure Esku Dagoen oinarrietako batek "herritarren garaia" da dio, eta herritarrek ahalduzko behar hori begibistakoa da. Nik uste dut Es-

koziaren horretan asmatu dutela. Elkarrizketatueta-ko zenbaitzuk esaten ziguten beti izan dituztela eurek gutxietsita Britainia Handi horretan, baina jabetu direnean euren indarraz, begiratu dutenean euren lurretan eta ikusi dituztenean petrolio eta abarrak, eta batez ere konturatu direnean Britainia Handia euren begira zutela, nor sentitu direla eta jabetu direla elkartzuz gero etorkizuna euren esku dutela. Jokatu dute handira irabazi egin dute.

Gure Esku Dago Elgoibarren duen batzordean ere aritu izan zara lanean. Nola baloratzen duzu gaur artean egindakoa?

Balorazioa oso positiboa da. Elgoibarren berandu batu ginen mugimendura beste herri batzuekin alderatuta. Gu hasi ginenerako eibartarrak eta mutrikuarrak ostikoka geneuzkan ia lo geunden edo zer galdezka. Giza katera begira hasi ginen lanean, besteek egin zuten pedagogia lan hori egiteko asti handirik hartu gabe. Hala ere, giza kateko egunean sekula elkarren ondoan jartzea pentsatuko ez genituenak elkarri eskua emanda ikusi genituen Bergaran. Eta emozionatu ginen, emozionatuta eman geniolako eskua ordura arte geuk nahi ez genuelako eman ez genion horri. Pentsa zein tontoak izan garen. Nik nahiko nuke giza katean batu ginenok eta gehiago ere batzea dinamika honetara. Kataluniarrek "ordua da" esan dute, eta guk "bazen ordua" esan beharko genuke. Jendeak pozik bizi nahi du, eta horregatik, parte hartzerantz animatuko nituzke elgoibartarrak. Elgoibarren, urriaren 1ean egingo dugu hurrengo batzarra Kultur Etxeko hitzaldi gelan (19:00).

“Kataluniaren ondoan ikusten gaituzte Eskoziaren, eskua altxatzen moduan”

HILEKO AZKEN ZAPATUKO FERIA ELGOIBARKO IZARRAREKIN

PINTXOAK

1€

Pa amb tomaquet

urdaiazpikoa eta piper berdearekin



Txorizo egosia



ZAPATU GOIZARI IKUTU BEREZIA EMAN NAHI BADIOZU
ETORRI KULTUR ETXE PARERA

Goi mailako pintxoak, euro baten truke, 11:00etatik aurrera



ELGOIBARKO IZARRA
Euskararen Topagunea

Alemana, frantsesa, ingelesa, italiera eta txinera

Ordutegi bereziak!

- Talde murriztuak mailaka.
- Komunikazio klaseak.
- 2 egun astean. (astelehena eta asteazkena edo asteartea eta osteguna.)
- 3 ordu astean. (Goizez eta arratsaldez)

2014-2015 ikasturtea urriaren 1ean hasiko da, eta ekainaren 19an bukatuko da

Industry Language Services

Informazioa, matrikula eta ordutegia

9 4 3 7 4 4 0 4 0

www.ils.es

ILS



Eskubaloia plazara



Eskubaloia plazara atera zuen Sanlok joan zen asteburuan. Sanlobeer garagardo feria antolatu zuten, eta eguenetik domekateak beste, zapatu goizean klubeko taldeak aurkeztu zituzten. Aurten, bestalde, ELA gaixotasuna dutenei laguntzeko busti...

Zuri-gorritz jantzitako asteburua izan genuen joan zen astean. Sanlobeer garagardo feria antolatu zuten Sanlok, eta Maalako karpan jendetza batu zen asteburuan zehar. Festa eta kirola uztartu zituen eskubaloi klubak, eta besteak beste, Sanloko taldeak aurkeztu zituzten zapatu goizean. Erreminta Makinaren mendeurrenaren harira, IMH-ko museoan atera zituzten taldeen argazkiak, eta Ikastolan egin zuten familia erretratua. Aurten hamalau talde izango ditu Sanlok, eta eskubaloi eskolan beste hiru edo lau talde arituko dira txikienekin lanean. Guztira, 300 bat jokalarik izango ditu Sanlok hasi berri den denboraldian. Asteburuko ekintzen artean, bada nabarmentzeko ekimen berezi bat: ELA gaixotasuna dutenei laguntzeko busti zen Sanlo zapatu eguerdian. 150 bat lagun batu ziren Kalegoen plazan, eta nork bere burua busti zuen ur baldekada batez. Herritarrek emandako diru ekarpenei eta klubaren donazioei esker 1.300 euro inguru emango dizkiote Adela Euskal Herria elkarteari. Aiala Zarautz eskubaloi taldekoei izendapena onartu ostean egin dute bat Sanlokoek Baldekada Ur Izoztuaren kanpainarekin, eta kateari segida emateko, eurek ere izendatu dituzte beste hiru: Alcorta eta Lauko enpresetako langileak, eta, Elgoibarko Udaleko langileak eta korporazioa.

Arg.: Soarte





a bitartean hainbat eta hainbat lagun batu ziren Maalako karpan. Ospakizunen artean, kirolak ere izan zuen lekua, eta bes-
en klubeko kideak. Argazki gehiago eta bideoa ikusteko: www.elgoiBARREN.net.

Ainhoa Andonegi



Erretratu zaharra



1956

Aste honetako erretratu zaharra Mari Juli Kondek ekarri du BARRENERA. 1956an Rivavellosako udalekuetan eman zuten neska horiek hilabete, eta han ateratako argazkia da. Garai hartan Caja de Ahorros Provincial de Guipuzcoa zenak antolatzen zituen udaleku horiek, eta jende asko joaten zen. Gogora ditzagun zeintzuk diren argazkian ageri diren neskatila horiek:

Goian: Ines Uncilla, Coro Rivero, Arantza Garzia eta Feli Garitagoitia (†).

Behean: Kontxi Osoro, Karnele Garzia, Mari Juli Konde eta Maite Arana.



ESKERTZA

MIGUEL SAN MARTIN MAGUREGI

*Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko,
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.*





*Irailaren 12an hil zen, 82 urte zituela.
Sendiak eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*

David Garciak eta Cristina Loedak irabazi dute aurtengo Gau Krosa

227 lagunek hartu zuten parte lasterketan

David Garcia eta Cristina Loeda izan ziren azkarrenak zapatuan jokatatu zen Gau Krosean. Elgoibarraren lortu duen bigarren garaipena izan da Garciarentzat (24:28). Loedak, (29:46) aldiz, hirugarrenegoz irabazi du Elgoibarraren. Kalegoen plazatik irten eta 7,7 kilometroko ibilbidea osatu zuten herrian zehar, eta guztira 227 lagunek hartu zuten parte. Elgoibartarrei dagokienean, sailkapen nagusiko hirugarren postuan sailkatu zen Jon Garate izan zen bizkorrena gizonetzkoetan (25:56), eta emakumezkoetan, aldiz, Cristina Villalobos (30:47). Honen ere hirugarren egin zuen emakumezkoen sailkapenean. Argazki gehiago eta sailkapen osoa ikusteko: www.elgoibarren.net.



Iñigo Larizek bigarren egin du Uharte Arakil-Beriaingo kilometro bertikalean

Kilometro bertikalen zirkuitua irabazteko aukera du

Uharte Arakil-Beriaingo seigarren kilometro bertikala jokatu zuten domekan Sakanan, eta Iñigo Larizek sasoi onean dagoela erakutsi du berriro, bigarren sailkatuta. Aitor Osa itziar-tarra izan zen azkarrena Beriain mendira igotzen (1.494 metro) eta errekor berria ere ezarri zuen (40:21), baina haren garaipenak zeresan handia eman du sare soziale-tan eta baita sari banaketa ekitaldian ber-tan ere. Izan ere, txirrindulari izandakoak EPOarekin eman zuen positibo 2012ko apirilaren 28an Arratzun (Bizkaia) jokatutako mendi lasterketan, eta jendea ez dago, itxuraz, barkatzeko prest.

Irabazlearengandik ia hiru minutura ailegatu zen tontorrera Iñigo Lariz, eta, hala, iaz lortu zuen bigarren postua errepikatu zuen. Open Lafuma Euskal Herriko Bertikalen Zirkuitoko bigarren proba puntuagarria izan zen Uharte Arakil-Beriaingo Kilometro Bertikala. Azpeitiko Zuzenien lasterketa izan zen aurrenekoa, martxoaren 3an. Hirugarren eta azken proba, berriz, Anbotoko kilometro bertikala izango da,



urriaren 12an. Larizek ez zuen Azpeitiko proban parte hartu, baina domekan lortu zuen bigarren postuari esker, zirkuitua irabazteko aukerak ditu oraindik. Azken bi urteetan Larizek irabazi zuen Euskal Herriko Bertikalen zirkuitua.

Sanloko senior taldeek etxean hasiko dute denboraldia, bihar

Sanlo eskubaloiko klubeko senior taldeek, Alcortak eta Laukok, ligako estreinako partidak jokatuko dituzte bihar etxean, eta klubak Olaizaga kiroldegira gerturatzeko deia egin die herritarrei, taldeak animatzera.

K-stretch ikastaroa antolatu du Udal Kirol Patronatuak urrirako


K-Stretch ikastaroa antolatu du Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak urrirako. Gorputzeko oreka zaintzen laguntzen du K-stretch teknikak, postura txarrak zuzenduz eta giharretako gainkargak arinduz. Hala, gomendagarria da gehiegizko jarduera fisikoa, traumatismoren bat, estresa edo gehiegizko tentsio muskularra dute-nentzat. Jarduera honekin artikulazioen mugikortasuna, arnasketa eta zirkulazioa hobetzen dira. Argiñe Gabi-londo monitoreak emango ditu eskolak. Astean saio bakarreko ikastaroa izango da, eta interesatuek hiru egun izango dituzte aukeran izena emateko: martitzenak (10:10), asteazkenak (15:00) eta barixakuak (13:15).



ESKERTZA

EMILIO ALVAREZ MIRÓN

2014ko uztailaren 25ean hil zen, 77 urte zituela. Haren oroimenez meza izango da, zapatuan, irailak 27, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokan. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

ANA MARI ZUAZUBIZCAR GOENAGA

2014ko irailaren 18an hil zen, 87 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Aiastiarra korrika igoera jokatuko dute domekan, San Migel jaien barruan

12:00etan irtengo dira partaideak Kalegoen plazatik

San Migel jaien barruan, Aiastiarra korrika igoera jokatuko dute domekan. 12:00etan irtengo dira korrikariak Kalegoen plazatik, eta Murkaikupe frontoirainoko ibilbidea egin beharko dute korrika. Guztira bost bat kilometro dauzka ibilbideak. Interesatuak lasterketa hasi aurretik eman beharko dute izena, Kalegoen plazan bertan. Iaz 27 lagunek hartu zuten parte, eta Igon Manzidor debarra izan zen helmugan azkarrena. Debako antxitxikiak 20 minutu eta 28 segundotan osatu zuen ibilbidea. Jorge Gonzalez ailegatu zen helmugara bigarren postuan, 21:50 denborarekin eta Ivan Murua sailkatu zen hirugarren postuan, Gonzalezengandik bi segundora. Emakumezkoei dagokionez, Ainhoa Lendinez izan zen azkarrena, 27:26 denborarekin.



Aiaraldeako raid orientazio proba irabazi du Imanol Garaizabalek



Aiaraldeako raida jokatu zuten zapatuan Gorobel mendilerro inguruetan (Araba), eta Imanol Garaizabal elgoibartarrak irabazi zuen, Gaizka Agirre Arratiakoa lagun hartuta. 49 bikotek bukatu zuten proba. Bikote bakoitzak BTT,

trekking, espeleologia eta orientazio probak egin behar izaten ditu raid probetan, zazpi orduko denboran. Denbora kontrolatzeaz gain, zirkuitoan dau den balizak hartu behar dira, ahalik eta puntu gehien lortzeko. Imanol eta Gaizka 6:59:48 denboran iritsi ziren helmugara, 127 punturekin. Fisikoki eta orientazio aldetik raid ona egin zutela adierazi du elgoibartarrak, baina trekking-ean ez zutela estrategian asmatu: “Ez genuen ibilbide azkarrena egin, eta ondorioz azken segundora arte estutu behar izan genuen garaipena lortzeko”, adierazi du. Raida oso polita eta oso ondo antolatutakoa izan zela gaineratu du Imanolek. Bi aste barru Arratiako raidean hartuko du parte.

Jabi Guallar eta Abel Arriagak, eta Jurdan eta Aitzol Ezenarro anaiek ere hartu zuten parte.

EMAITZAK

FUTBOLA

Usurbil 1 – Haundi 0 (Ohorezko erreg.)
Elgoibar 2 – Zestoa 0 (Erreg.)
Elgoibar 2 – Beasain 3 (Jub.)
Elgoibar 1 – Ordizia 5 (Kad. A)
Aurrera Ondarroa 0 – Elgoibar 5 (Kad. B)

PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa
Lagunak 11 – Gazteleku 22 (2. mailako nag.)
Intza 22 – Lagunak 16 (2. mailako Jub.)
Pala
Lagunak 25 – Zestoa 17 (2. mailako nag.)
Usurbil 17 – Lagunak 25 (2. mailako nag.)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile Elg. 8 – Aurrera Vitoria 3 (2B)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 27
17:00 Haundi – Ostadar (Ohorezko erreg.)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 27
17:45 Lauko Elg. – Basauri (Sen. nesk.)
19:30 Alcorta Elg. – Arrasate (Sen. mut.)
Domeka, 25
10:00 Tecnifuelle Elg. – Bera Bera (Kad. nesk.)
11:30 Astigarraga Elg. – Bera Bera (Jub. nesk.)

PILOTA

Barixakua, 26
Pala
21:15 Lagunak – Loiolatarra (2. mailako nag.)

Atxolin eta Karakateko iturriak konponduko ditu Morkaikok, auzolanean

Sargoaten egin zuten moduan, Atxolin eta Karakateko iturriak konponduko ditu Morkaikok, auzolanean. Horrekin batera, Upaigoititik Atxolinerako bidea ere txukunduko dute. Lan horiek egiteko bi goiz-pasa antolatutakoz, urriaren 4 eta 11rako. 8:00etan elkartuko dira IMHko tenis pistan. Parte hartu nahi dutenek 636 994 798 telefonoan edo Morkaikoren lokalean eman dezakete izena. Eguraldiaren arabera, planak aldatzea posible dela aurreratu dute antolatzailleek.

‘Tertuliak’ egitasmoan izena emateko epea zabaldu du Elgoibarko Izarrak

Urriaren 10era arte eman daiteke izena

Biderkatu euskara, mintzalagunen magiarekin jarri diote lema aurten-go kanpainari. Elgoibarko Izarrak ere bat egin du egitasmoarekin, eta euskara praktikatu nahi dutenentzako *Tertuliak* programa jarri du martxan aurten ere. Horren barruan, euskaraz hitz egiteko ohitura dutenak eta mintzapraktika egin nahi duten pertsonak bilduko dira, euskaraz hitz egiteko. Astean behin elkartuko dira ordubetez, talde txikietan, kafetegian, parkean edo talde bakoitzak erabakitzen duen ingurunean. Euskara hobetzeko, gehiagotan erabiltzeko, euskaraz bizitzeko, normalizazioaren alde egiteko, ingurune euskalduna sortzeko, indartzeko eta zabaltzeko egitasmoa da *Tertuliak*.

Nahi duenak Elgoibarko Izarran esku-ratu dezake informazio gehiago (943 741 626). Izena emateko azken eguna urriaren



10a izango da. Elgoibarko Izarran, AEKn edota Udal Euskaltegian eman daiteke izena.

‘La última oportunidad’ antzezlanaren Mendaron

La última oportunidad antzezlanaren ikusteko aukera izango da Mendaron, datorren urriaren 3an. Julian Iantzi eta Gurutze Beitia dira protagonistak. Emakumeak ama izan nahi du, eta amets hori egi bihurtzen lagunduko dion hazia emango dion gizonezkoaren bila dabil. Julian Iantzik beteko du hazi emalearen papera. Umorea, gaizki-ulertuak eta sedukzioa dira antzezlanaren honen osagai nagusiak. San Agustin kulturgunean izango da emanaldia, 22:00etan hasita. Sarrerak salgai daude dagoeneko udaletxean eta Morroskilo dendan.

Emakumeentzako ikastaroak eskainiko ditu Jabetze Eskolak

Berdintasun Sailak emakumeentzako bi ikastaro antolatu ditu, Jabetze Eskolaren barruan. Batetik, *Komunikazio ez bortitza* izeneko ikastaroa eskainiko du Isabel Santiagok. Urriaren 1ean hasiko da, eta hamar orduko iraupena izango du. Eguaztentean emango ditu eskolak, 18:30etik 20:30era bitartean. Azaroan, bestalde, *autoestimua feminista eta jabetzaren tailerra* ikastaroa eskainiko du Loredi Salegik. Azaroaren 5ean hasiko dira eskolak, eta hamar orduko iraupena izango du.

Bi ikastaroak doakoak dira, eta gaztelaniaz eskainiko dituzte. Informazio gehiago 943 741 050 (Elena Alonso) telefonoan.

Matrikulazioa zabalik Udal Euskaltegian

Euskara ikastaroetan izena emateko epea bukatzeaz dagoela gogorarazi dute Udal Euskaltegiko arduradunek. Interesatuak euskaltegira bertara joan daitezke, edo bestela, 943 742 731 telefonora deitu.

San Migel jaiak ospatuko dituzte Aiastian, gaurtik astelehenera bitartean



Astelehenean da San Migel Eguna, eta horren harira, festak ospatuko dituzte asteburuan Aiastian. Gazteentzako, umeentzako zein nagusientzako ekintzak antolatu dituzte. Gazteen Eguna izango da gaur, eta besteak beste, afaria eta disko festa izango dira Murkaikupe frontoian. Haritz dantza taldeak ere gaur egingo du bere dantzaldia, eta azken urteotan bezalaxe, Borja Uzuriaga auzotarrari eskainiko diote saioa. Bihar, Euskal Herriko arraza libreko artzain txakur txapelketa izango da ekintza nagusia. 17:00etatik aurrera artzain eta txakurrak arituko dira lanean, eta tartean, Jose Antonio Arrillaga aia-tiarrak ere parte hartuko du. Gauean, Egaña eta Arzallus bertsoari ekingo dute bertso-afaria. Domekan idi-demak izango dira, besteak beste, eta astelehenean auzotarren arteko pilota partidak. Egitarau osoa: agendan.

Elgoibarko Izarrak jarriko du txosna bihar, azken zapatuko ferian

11:00etan zabalduko dute txosna



Elgoibarko Izarrako langile eta bazkide talde bat, izazko txosnan.

Udalak eta Debemenek antolatuta, azken zapatuko feria egingo dute bihar. Hilero bezala, Elgoibarko baserrietako produktuak jarriko dituzte salgai Kalebarren plazan, eta eguerditik aurrera, ganadu erakusketa egongo da Aita Agirre plazan. 12:00etatik aurrera Kale Kantariak irtengo dira kantura. Antolatzaileek jakinarazi dute hilabete honetan ez dute la entsegurik egingo. Horrez gain, herriko elkarteek kudeatzen duten txosna Elgoibarko Izarrak jarriko du oraingoan. Euskal giroan bi pintxo dastatzeko aukera eskainiko dute: txorizo egosia eta *Pa amb tomaquet* urdaiazpiko eta piper berdeekin. 11:00etan zabalduko dute txosna. Jarraian pizza tailerra egingo dute etxeko txikienekin.

Egun honetako ekintzak GUSTUM programaren baitan kokatzen dira. Gustum lurralde arteko egitasmo bat da, tokian tokiko hamar ekintza taldek sustatzen dutena (Euskadi, Lleida, Balearrak), landa garapena bultzatzeko helburuarekin. Horretarako, tokian tokiko nekazaritzako kalitatezko elikagaiak erabiliz sukaldaritzarekiko, turismoarekiko eta merkataritzarekiko sinergiak bultzatzen dituzte. Mendinet ekintza taldea da proiektu honetan, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiaren ordezkaria. Debemen elkarte ere ekintza talde horretako partaide da.

Bi kontzertu antolatu ditu Sinuosek astebururako, 'Sotoko Hotsak' egitasmoaren barruan



Atzo hasi zen Sinuosek antolatutako *Sotoko Hotsak* egitasmoa Willis Drummond-en kontzertuarekin, eta astebururako beste bi emanaldi antolatu dituzte. Gaur gauean Akauzaste taldeak eskainiko du kontzertua. Akauzaste 1992an sortu zuten, Azkoitian, eta zuzeneko lehen emanaldia 1993ko martxoan eskaini zuten. 2004tik gaur egunera arte hiru lagunek jarduten dute zuzenekoetan. Soinu "ilun eta bortitzak" eskainiko dituzte.

Bihar, bestalde, Unicornibot talde galizarraren txanda izango da. Pontevedrako taldearen oinarritzko osagaiak post-hardcore eritmiko sendoa eta rock klasiko aurrerakoia dira. Madrock estiloko doinuak estatu mailan zabaldu ostean iritsiko dira Elgoibarrera. Kontzertuak 23:00etan izango dira, eta sarrerak 3 eurotan salduko dituzte.

Dantza ikastaroak

Haritz euskal dantzari taldeko kideek plazako dantzen ikastaroa eskainiko diete gazte zein helduei. Hasiberrientzako eta aurretik ibilitakoentzako mailak egongo dira. Ikastaroak 40 euroko prezioa izango du. Izena emateko musika eskolako idazkaritzara jo daiteke urriaren 3ra arte. Eskolak urriaren 6an hasiko dira, eta abenduaren 22an amaitu.

'Flipy'-ren bakarrizketa gaur, Herriko Antzokian

Telebistako *El Hormiguero* saioko zientzilari xelebrea Elgoibarren izango da gaur gauean. *Flipyk* bakarrizketa eskainiko du, Herriko Antzokian, 20:30etik aurrera. Sarrera aurrez erosi ez dutenek, Herriko Antzokiko lehiatilan bertan izango dute erosteko aukera, 15 euroan.

Argazki eta marrazki lehiaketa antolatu dute, 2015eko egutegia osatzeko

2015eko egutegia osatzeko argazki eta marrazki lehiaketa antolatu ditu Udalak, eta urriaren 17an bukatuko da parte hartzeko epea. Elgoibarko txokoak izango da egutegiaren gaia, eta Elgoibarrirerreferentzia egiten dioten argazki zein marrazkiak aurkeztu beharko dira. Argazki lehiaketari dagokionean, partaide bakoitzak sei argazki aurkeztu ahal izango ditu gehienez. Ongarriko eta Udaleko kideek osatuko dute epaimahaia, eta aukeratutako argazki bakoitzaren egileak 70 euroko saria jasoko du.

Marrazki lehiaketa, aldiz, Ikastola eta Herri Eskolarekin elkarlanean antolatu dute. LH5. mailako ikasleek hartu dezakete parte, eta ikastetxe bakoitzeko sei lan sarituko dituzte. Marrazki horiek egutegiko hilabete bakoitzean agertuko dira, argazki nagusiaren beheko aldean.

ETXEBIZITZAK

- Etxea alokatzen dut, Ubitarten. Berritua, altzariekin. Bi logela, egongela eta sukalde-jangela handia. Igogailuarekin. ☎ **943 742 442**
- Bi logelatako etxea alokairuan, Maalan. Eguzkitsua, igogailuarekin. ☎ **652 716 724**

LANA

ESKAERA

- Neska eskaintzen da adinekoak zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ **617 571 210**
- Emakumea adinekoak zaintzeko prest. ☎ **677 259 560**
- Emakumea adinekoak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile aritzeko prest. ☎ **606 354 982**
- Emakumea lan bila. ☎ **634 709 827**
- Emakumea adinekoak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Ordu-tegi malgua. Asteburu-erretan. ☎ **638 338 816**
- Emakumea adinekoak, ezinduek zein umeak zaintzeko prest. ☎ **688 901 667**
- Emakumea adinekoak zaindu eta garbiketari lanak egiteko prest. ☎ **690 925 929**
- Gizona eskaintzen da garbiketari egiteko edo adinekoak zaintzeko. ☎ **602 057 896**
- Emakumea garbiketari lanak egiteko edo zerbitzari lanetarako prest. ☎ **690 064 225**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Esperientzia handia. ☎ **609 947 694**
- Pedikura eta manikura egiten dut etxetik. ☎ **639 423 493**
- Emakumea asteburu-erretan garbiketari lanak egiteko edo umeak zaintzeko prest. ☎ **639 423 493**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. ☎ **633 808 931**
- Gizona lan bila. Adinekoak zaintzen esperientzia. ☎ **628 740 765**

- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Interna ere bai. ☎ **653 128 080 / 688 265 402**
- Neska lan bila. Tabernan, garbiketari egiten eta umeak zaintzen esperientzia. ☎ **677 216 767**
- Emakumea eskaintzen da asteburu-erretan adinekoak zaintzeko. Interna ere bai. ☎ **602 186 462**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Egunez zein gauetz. ☎ **680 121 252**
- Emakume euskalduna eskaintzen da umeak zein adinekoak zaintzeko. Interna ere bai. Klinikari laguntzaile tituluararekin. ☎ **688 826 968**
- Mutil euskalduna eskaintzen da goizetan lan egiteko. Filosofian lizentziatua. ☎ **678 155 803**
- Emakumea eskaintzen da lanerako. Adinekoak zaintzen esperientzia handia. Orduka edo interna. ☎ **642 609 678**

ESKAITZA

- Kirol enpresa batek monitoreak behar ditu, Debabarrenen kiroldegietan spinning, pilates, K-Stretch, hipopresiboak... emateko. elgoibar@bpxport.es
- Elektrikari, iturgin edo antzeko ofizioetan esperientzia duen pertsona behar da. CV bidali argazkiarekin: ezenarro13@gmail.com
- Elgoibar Ikastola erakuntzen mantenu eskarmentua duen langile elgoibartarra eta euskalduna behar du, jardun erdiz. CV bidali: elgoibar@elgoibarikastola.net. Erref.: Mantenua

IBILGAILUAK

- Renault Space autoa salgai. Egoera onean. ☎ **689 583 761**

BESTERIK

- Irailaren 12an Samsung telefonoa ahaztu zitzaidan taxian eta mutil batek hartu zuen. Deitu mesedez. ☎ **666 329 728**
- Txakur kumeak oparitzen ditut. ☎ **943 743 032**


LOKALAK ETA GARAJEAK

- Garaje marraduna alokatzen da Lekuederren. ☎ **652 716 724**
- Garajea salgai Maalan, Eroski azpian. 16m², itxia. 22.000 euro. ☎ **675 007 661**
- Lokala alokairuan Erretxindin. 120m², bi komun, aparkatzeko erraztasunak. Gazteentzat edo biltegi moduan erabiltzeko egokia. ☎ **649 446 716 (Loli)**

PARTIKULARRAK

- Neska euskaldunak LH eta DBHko klase partikularak ematen ditu. Edozein ikasgai. EGA titulua daukat. ☎ **659 024 427**
- Ingeniari mekanikoak DBHko klase partikularak emango lituzke. EGA eta First titulua ditut. ☎ **676 722 556**
- Ingeles Filologia ikaslea edo lizentziatua behar da, DBHko ikasle bati eskolak emateko. ☎ **650 011 441**
- Alemanierazko klaseak ematen dira. Metodo erraza eta atsegina. Ikasleen trukea eta E.O.I. azterketen prestaketa. ☎ **670 793 312**
- Lizentziatua eskaintzen da matematika, fisika, marrazketa... irakasteko. DBH, Batxilergo edo Heziketa Zikloetan. ☎ **699 495 278**

P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



Nire komunitatean batzarrak egiten ditugunean apenas batzen den etxe-jaberik. Horregatik kasu gehienetan ezin izaten dugu ezer erabaki. Badago hau konpontzeko modurik?


Aribide batekin azalduko dizut. Jo dezagun hamar etxe-jabeko komunitate bati buruz ari garela, zeinean denek parte-hartze kuota bera duten.

Lehenengo deialdira etxe-jabe guztiak deitzen baditugu eta lau bakarrik agertzen baldin badira, ezinezkoa izango da ezer adostea, ez daudelako parte-hartze kuota ordezkatzen dituztenen gehiengo. Kasu horretan sei etxe-jaberen parte-hartzeak bermatuko luke gehiengo hori izatea.


Hala ere, bigarren deialdi bat egiten bada lehenengo deialdi horretatik hogeita hamar minutu beranduagorako, nahikoa izango da agertu diren guztietatik gehiengoak esan duena aintzat hartzea. Horretarako, baina, gutxienez hiru etxe-jabe agertu behar dira batzarrera.

Formula horrekin etxe-jabeen batzarretan erabakiak hartzea erraztu nahi du legeak, bestela askotan zaila izango litzatekeela, bizilagun asko ez direlako batzarretara agertzen.

AHOLKUA: Nolanahi ere, bileran hartzen diren erabakien berri etxe-jabe guztiei eman beharko zaie, baita agertu ez diren horiei ere. Epe horretatik aurrera, etxe-jabeek 30 egun natural izango dituzte desadostasuna agertzeko. Epe horren barruan, kontrakorik jasotzen ez bada, hartutako erabakiekin ados daudela ulertuko da.



ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749



Consejo Vasco de Colegios de Graduados en Ciencias Jurídicas y Sociales

Asociación de Graduados en Ciencias Jurídicas y Sociales



• Zorionak, **Udane**, 8 urte bete dituzulako. Muxu handi bat etxekoen eta bereziki Goiatzen partez.



• Zorionak, **Alain**, amarenen, izekoren eta gurasoen partez. Egun ona izan dezazula.



• Zorionak, **Naroa**, asteazkenean 4 urte bete zenituelako. Etxekoen, eta bereziki Malen eta Unaxen partez.



• Zorionak, **Uxue**, asteartean 6 urte egin zenituelako. Etxekoen, eta bereziki, Danelen partez.



• Zorionak etxeko **printzesari**. Ederki ospatu dugu zure 5. urtebetetzea. Patxoak, bereziki Danelen partez.



• Zorionak zuri! Zer moduz? Urtebete gehiago duzu, **Miren!** Zorion bero-beroak eta marrabizko sei muxu.



• Zorionak, **Oinatz**, bihar 7 urte beteko dituzulako. Famili osoaren, eta bereziki, Ihintzaren partez. Segi alai!



• Azkenik iritsi da zure eguna! Zorionak, **printzesa**.




• Zorionak, **Paula** asteazkenean 8 urte egin zenituelako. Patxo handi-handi bat, guztien partez.




• Zorionak, **Darwin Xabier**, atzo 7 urte egin zenituelako. Aita, ama eta Iruneren partez.



• Zorionak, ama **Eukene**, eta zorionak, **Manex** anaia, zure zazpigarren urtebetetzean. Zazpi belarri tirakada, Xabaten partez.



• Iritsi da zuen eguna! Larunbatean egun handia ospatuko dugu! Muxu bat, familiakoen partez.



• Zorionak, **Markel**, gaur 3 urte beteko dituzulako. Oso ondo pasa zure egunean. Etxekoen eta bereziki



arreba Juneren partez. • Zorionak, **Eider**, zure zazpigarren urtebetetzean. Muxu potolo bat, guztien partez.



• Zorionak, **Maddi**, asteazkenean 9 urte! Ondo pasa eta muxu potolo bat, maitte zaittuen guztien partez.



• Zorionak, **Danel**, gaur 8 urte potolo beteko dituzulako. Etxeko guztien partez.



• Zorionak, bikote! **Haizea eta Oihane**, gaur 8 urte! Patxo potolo bat, familiakoen partez.



• Zorionak, bikote! **Haizea eta Oihane**, gaur 8 urte! Patxo potolo bat, familiakoen partez.

Matrikulazio epea zabalik

Elgoibarko Haurreskola
943 742 141



Haurreskolak

www.haurreskolak.net





26 barixakua

Kultura

20:30 Bakarrizketa

'Flipy' Telebistako umoregile ezagunak bakarrizketa eskainiko du. Herriko Antzokian.

27 zapatua

Azken zapatuko feria

9:00 Baserriko produktuen salmenta

Kalebarren plazan.

11:00 Txosnaren irekiera

Elgoibarko Izarrak jarriko du txosna, Kalebarren plazan.

12:00 Kale Kantariak

12:30 Pizza egiteko tailerra

Eguerdian Ganadu erakuskea Aita Agirre plazan.

28 domeka

Musika

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua

Herriko Antzokian. Zuzendaria: Gorka Mujika.

- Sea song (R.V. Williams)

- Utopia (J. De Haan)

- Toda una vida (O. Farrés)

- Espineta (N. Jimenez / D. Moreno)

- Roller Coaster (M. Schwarz)

- Los miserables (C.M. Schonberg)

29 astelehena

Artea

17:00 Arte tailerra

Ikasturte hasiera. Kultur Etxean.

30 martitzena

Literatura

18:00 Irakurketa tailerra

Oscar Wilde. Liburutegian.

Kultura

18:30 Hausnarketa saioa

Kultur azpiegituren berrantolaketa zehazteko prozesu parte-hartzailea abiatu du Udalak. Lehen hausnarketa saioa egingo dute. Kultur Etxean.

SAN MIGEL JAIK (Aistian)

26 BARIXAKUA

19:00 Kanpai jotzea

21:30 Gazte afaria

23:30 Haritz dantza

taldearen emanaldia

Borja Uzuriagaren omenez.

Ondoren, disko festa

27 ZAPATUA

13:00 Umeentzako jolasak

Jarraian, umeen bazkaria

17:00 Artzain txakur

txapelketa

Euskal Herriko arraza libreko finala.

21:00 Bertso afaria

Arzallus eta Egaña bertsolariekin.

Ondoren, Erromeria

Kupela taldearekin.

01:00 Bolo txapelketa

28 DOMEKA

11:00 Meza

Jarraian, Baltzola anaiak trikitilariak

12:00 Aiaziara korrika

igoera

14:30 Bazkaria

17:00 Idi-demak

Ondoren, Baltzola anaiak trikitilarien saioa.

28 ASTELEHENA

11:30 Meza

Jarraian, Ziarda eta Mafiu bertsolariak

Ondoren, esku pilota partidak.

14:30 Bazkaria

Ondoren, erromeria, Elustondo anai-arrebak taldearekin.

21:00 Afaria

Ondoren, erromeria, Elustondo anai-arrebak taldearekin.



BOTIKA ORDUTEGIAK:

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
26 Fernandez 27 Yudego 28 Yudego 29 Zabaleta 30 Barrenetxea 1 Ibañez 2 Garitaonandia 3 Etxeberria	Astelehenetik igandera Yudego	Azkue (Eibar) Toribio Etxebarria 4 (943 202 344)

* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Zabaleta Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

ZINEMALDIK 2014 ZINEA (HERRIKO ANTZOKIAN)

«Hermosa juventud»

26, barixakua: 22:15

«El extraordinario

viaje de T.S. Spivet»

27, zapatua: 19:00 / 22:15

28, domeka: 19:00

29, astelehena: 21:30



Gremioen GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixillon 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.lodoso.es

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 531 847
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 254 522

Pagoaga

Biltegia eta tailerra
San Antolin, 13
☎ 943 740 279
Bulegoa eta erakusketa
Pedro Migel Uruzuno, 8
☎ 943 943 740 512
tienda@pagoagasa.com

Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 756 044/659 334 323

Tellabide

Azpilgoeta, 7 • Mendaro
☎ 943 755 062/607 755 062

Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 740 530/605 714 905
Faxa: 943 531 825



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Upalz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20





LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



Abuztuan irekita

ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABEROKO ORDUTEGIA



Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik 22:00etara

Zapatuetan:
10:00etatik 14:00 etara

Doctor Antonio Murillo

Hezur Birsorkuntza
eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria.
Lleidako Unibertsitatea eta Madrilen.

Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizenziatua.

Alfonso X.a Unibertsitatea. Madril.

Implantologia Masterreko Irakaslea.
Lleidako Unibertsitatea.

Kirurgia Masterreko Irakaslea.
Salamanca Unibertsitatea.

Unibertsitate Institutuoietakoko Irakasle gonbidatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona,
Sevilla, Almería, Lleida, Leon, Málaga...
Unibertsitateetan.

Doctora Ainhoa Zulueta

Odontologian Lizenziatua. Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian,
Implantologian. Leongo Unibertsitatea.

Diplomatua Aho Kirurgian. Bartzelonako Unibertsitatea.

Hortz-Estatikan Diplomatua.

Modrilgo Unibertsitate Konplutentsean.

Hortz-Estatikan Diplomatua.

Autran Institutoa, Bartzelona.

Etengabeko Formakuntza.

New York-eko Unibertsitatea.

Okulzioan Graduondoa.

Anibal Alonso Doktorea.

**Eibarko
Dendarien Elkarte**
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN
TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGUURAK

GLOBAL CARD, OCASO, ENESA PREVENCIÓN,
CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ,
SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA,
AEGONSTONEBRIDGE, AVANTASALUD, PADI...
Galdetuiguazu!



IRAZABAL

clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta
finantziazio aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxebarria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com